


Noaia!!

www.noaia.com



Juanjo Olano, Euskal Herriko tiratzaile onena



Eskutik eskura igaro zen

Korrikaren lekukoa

www.noaia.com
usurbildarron zerbitzura



Badok Amairu !!

Iñaki Zugasti: "Ezin naiteke bizi, barre egin gabe"

Izen abizenak: Iñaki

Zugasti Anton.

Adina: 22 urte.

Helbidea: Atxegalde.

Lanbidea: Injeniaritza teknikoko ikaslea.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Nire amaren txipiroiak tintan.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Ohera berandu joatea.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?

Mugikorra eta giltzak. Gainerakoa poltsan.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Neska batengan, beste ikuspuntu

bat izateko.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Bakardadeari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Ama, aita eta neska laguna.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Barre egin gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Elkarrizketa hau egitea.

9. LIBURU BAT.

"Joxemiren ohelikopteroa".

10. FILM BAT.

"Borat".



11. LEKU BAT.

Leku eguzkitsu bat.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Kaxkoa.

13. URTARO BAT.

Udara.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ARRAINDEGIETAKO ERREZETA KANPAINA **5. OR.**JUANJO OLANO PLATER TIRATZAILEA **6. OR.**ZUMARTEKO TXISTULARIAK, DONOSTIA **7. OR.**ATZEGIREN ALDEKO KANPAINA **8. OR.**JUBILATUEN ASTEA, AZKEN TXANPAN **9. OR.**KORRIKAREN IRUDI AIPAGARRIENAK **10. OR.**MURRIZTU ZIRT EDO ZART **13. OR.**

Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

Hi txo!!!

Martxoaren zortzia gerturatzeko den heinean emakume kirats fin batek kutsatzen du dena. Erakunde sindikal, politiko, sozial, kultural, kirol munduko eta mundu osokoak estu eta larri dabilta azken orduan munduan emakumeon presentzia, eta esentzia, nolabait eta era ez sexista batean irudikatuko duen kartela plazaratu nahian.

Neska gazte baten esku finak ikusten dira batetan, behatzak eraztunez jantziak. Portuko etxeko andrearen eskuak izango balira argazkikoak genero nahasmena sortu zitekeen. Enfin...

ETBn ere, astelehena izaki eta egun lilaren atarian, tartetxo bat eskaini diote saskibaloiko Ohorezko maila femeninoari; Hondarribia-Irun taldeko jokalariei batek sekulako lesioa izan du eskuin belauneko zuntz gurutzatua. Bere taldeko kideak eta entrenatzailea, emakumea hau ere, gerturatu zaizkio salto batean. Flash tximistarik ez da egon, izarririk ez baita existitzen kirol femeninoan. Bi taldekideek besapetik eta entrenatzaileak hanketatik helduta atera dute kantxatik. Kamilarik ez, nonbait.

Laster omenduko du Emakundek ere, oraindano

egina ez badu behitatzat, Goenkalen ateratzen den Naroa Agirre, eta zenbaitek saria emateko adinako aktorea lanak ez dituela egiten pentsatuko du. A ze ironia...

Martxoaren zortziko Zutabea idaztea tokatzen zitzaidala eta NOAUA!koak deskuidatuta orain argitaratu dutenaren ustetan bazabiltza...a ze agonia...

Hi txo!!!! Herorrek dittuken eskubide berdinak eskatu besterik ez diat egin nahi. Eskubidez eskubidea diat elako. Desberdinak beti izan gaituk eta izango gaituk, eskubidez desberdinak ordea, ez, ez. Malaostian jartzen nauena, hitz hori emakume baten ahotan itsusi geratzen dela pentsatzea da; puru bat erretzen dudan bitartean zehar begiratuak sumatzea; inoiz zapata koxkordunen gainean ikusi ez nauzulako nire femeninotasuna zalanztan jartzea.

Berdinak izango gaituk nahi badek, etxeko lanetan, lantokian, tabernan, kirolean, ume kontutan, azokan, ohean...martxoaren zortzian, hamarrean, maiatzaren batean, bostean, Santixabeletan...

Eskubidez desberdinak izango gaituk ordea, herorrek ametitzen deken bitartean.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: apirilak 13.

Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 9.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

teiatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 - ASTEASU
© 943 69 68 52 - 620 800 186

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

50 euroko sei sari banatu dira

Arrandegietako Errezeta Lehiaketan

Buruntzaldeko Euskara Batzordeek merkataritzan euskara bultzatzeko kanpainak egiten dituzte; horien artean, azkena, arrandegien inguruan burutu dutena. Asmoa, saltzaile eta bezeroen arteko harremana euskalduntzea izan da. Hirugarren edizioak, ordea, berezitasun bat izan du. Pauso berri bat eman da, errezeta lehiaketa antolatu baitute. Martxoaren 22an sarituen izen-abizenak ezagutarazi zituzten herriko bi arrandegitan.

Azken asteetan, herriko arrandegietara hurbildu diren hainbat bezerok erreparatuko zion paretan esekita zegoen arrainen euskarazko izendegia-ri edota handik ez oso urruti zegoen kaxa bati. Beste hainbatek, jasoko zituen kaxa horretan sartzeko esku-orriak.

ERREZETA LEHIAKETA

“Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek martxan jarritako ekimenak arrakasta handia izan du”

Buruntzaldeko Euskara Batzordetako arduradunek Usurbilen, Andoainen, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian eta Urnietan arrandegiak euskalduntzeko jarri dituzten euskarriak dira. Merkataritzako arlo ezberdinetan, hala nola, ile apaindegi, gestoria edota fruta dendatan euskara bultzatzeko kanpainak egin dituzte. Oraingoan, aipatu bezala, arrandegien txanda izan da. Usurbilen, aipatutako bi saltokiek parte hartu dute.

Arrandegiak euskalduntzeko kanpaina

“Eska ezazu arraina euskaraz” lema-pean, arrandegietan erosle eta saltzaile direnen arteko jarduna euskaraz egite-



MARTXOAREN 22AN SARITUEN IZEN-ABIZENAK EZAGUTARAZI ZITUZTEN HERRIKO BI ARRANDEGITAN.

ra bultzatzea zen helburua eta horren haritik, aurtan, lehen aldiz, errezeta lehiaketa prestatu zuten. Aipatutako saltokietan erosketaren bat egitearen truke esku orri bat jaso zitekeen. Bertan, kanpainaren mamia eta arrainen euskal izendegia biltzen ziren. Horrekin batera, arraina osagai gisa zuen errezeta bat idazteko tartea zuen.

Batek baino gehiagok baliatu du bere gustuko errezeta idazteko aukera. Baldintza bakarra; arrainarekin lotutako errezeta goxo hori euskaraz idaztea. Norbere datu pertsonalak jarrita, horietako 88 esku-orri utzi dituzte Mikel eta Pello arrandegietan zeuden kaxetan. Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek duela hilabete martxan jarritako ekimenak parte har- tzaile ugari erakarri du Usurbilen.

Zozketak herriko arrandegietan egin ziren

Martxoaren 16ra arte asteetan jasozten joandako errezeten kaxak hilaren 22an zabaldu ziren. Udaleko Euskara zinegotzia den Ibon Beristain bertan zela, Pello eta Mikel arrandegietan egin ziren zozketa banatan ezagutarazi zituz-



ten zorionekoak diren sei herritarren izen-abizenak. Saltoki bakoitzean 50 euroko hiruna sari banatu zituzten, beti ere, errezeta bat euskaraz idatzi eta datu pertsonalen tartea beteta kaxetan utzi zituztenen artean. Saria kontsumit- zeko, hilabete epea izango dute.

Lehiaketan jende askok hartu du parte

Bolivar Abarka Illescas (Amuarraina nafar erara), Ander Zuriarrain (Atuna tomateare- kin), Olatz Lizaso Egileta (Xapoa), Socorro Martinez Vivar (Muskuilu birbeteak), Felicitas Sanchez Blazquez (Bakailaoa ajoarriero erara) eta Irati Guridi (Xapoa) usurbildarrek zorte ederra izan dute. 50 euroko sari bana jaso baitute, Pello eta Mikel arrandegietara bidalitako arrain errezeten truke. Buruntzaldeko udaletako Euskara Batzordeek antolatu duten errezeta lehiaketako irabazleak dira.

Juanjo Olano plater tiratzaileak

Euskal Herriko Txapelketa irabazi du

Juanjo Olano. Ehiztaria eta plater tiratzailea gaztetatik. Dagoeneko txapel, oroigarri eta kopa ugari irabazi ditu han eta hemen parte hartu duen txapelketatan. Bere esanetan, iragan urruneko ohitura bati eusten dio; gizakia betidanik izan baita ehiztaria.

NOAUA! Euskal Herriko txapelketa irabazi berri duzu. Pozik izango zara.

Juanjo Olano. Euskal Herri mailako txapelketa irabazten dudan laugarren aldia da. Herrialde guztietako onenak biltzen dira. Hilaren 18an Amurrión ospatu zen. Egun bateko tirada da eta 50 plater hautsi behar dira.

N. Ez da jantzi duzun txapela bakarra, ezta?

J. O. Gipuzkoa mailako bederatzi txapelketa irabazi ditut. Erregularitasun txapelketak izan ohi dira. Urte guztiko tiro saioak kontuan hartzen dira eta horren arabera, plater gehienak hausten dituen lehiakideak irabazten du.

N. Denboraldia nola antolatzen da?

J. O. Oro har, Gipuzkoa mailakoa martxoa aldera hasi ohi da. Urria hasieran, Aginagako San Praixkutako tiro saioarekin amaitzen da.

N. Etxetik kanpo ere ibili zara?

J. O. Europako txapelketan, Oporto ondoan, 200 plateretara, eta 188 hautsi nituen. Ez da portzentaje handia, irabazleak 197 hautsi baitzituen. Ni baino bederatzi gehiago; kasu horretan, alde ikaragarria da. Mundu mailakoan, Valentzia aldean ere parte hartu nuen. Baina oso zaila da, hemen 120 bat tiratzaile badatoz, han 600 batek parte hartzen dute eta. Hemengo erdiak joango bagina, oro har, gutako batek irabaziko luke; baina bizpahiru joanda oso zaila da. Hala ere, jarritako dirua berreskuratu eta ondo pasatzen guenen.

N. Entrenamenduak. Non eta nola prestatzen zarete?

J. O. Tiro gutxiena botatzen duena naiz. Amurrioko txapelketa baino astebe-te lehenago, Irungo San Martzialera joan nintzen. Han tiro zelaia dago. Entrenamendu saioa egin nuen; 25etik 25 hautsi nituen lehen seriean. Nire burua ondo ikusi nuenez, aurkeztu egin nintzen.

N. Urteetako esperientzia izango duzu.

J. O. Hogeitakoa. Oso bitxia da. Tiroan hasi nintzen garaian, ordurako ehizean aritzen nintzen. Gogoan dut behin, Zubietako tirada batean, gauez foku eta guzti, parte hartzea erabaki nuen. Hamabostetik bat besterik ez nuen jo. Nire buruari esan nion hain txarra ez nintzela. Halako haserrea izan nuen, Villabonara joan nintzela Eizemendirena. Txapelketen egutegia eskatu nion. Beste hiru saioetan parte hartu nuen; horietan guztietan saria eskuratu nuen. Ordutik serio hastea erabaki nuen.

N. Plater tiratzaileak derrigorrean ehiztaria izan behar al du?

J. O. Orokorrean, tiratzaileak direnak gaztetik ehizean aritu direnak izan ohi dira. Baina ez direnak ere badaude. Tiratzaile onak ere bai, ehizean ibili gabe.

N. Alde horretatik, legedia oso zorrotz al dago gaur egun?

J. O. Tristeia dena da gaur egun plater tiraldietarako zelaia itxi eta berriak ez



OLANOK LAU ALDIZ IRABAZI DU EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA.

direla irekitzen. Zelai batek orientazio txarra baldin badu, ixtea ondo iruditzen zait. Baina horri irtenbideren bat aurki diezaiozela; haren orde, beste gune bat ireki dezatela. Gaur egun zelaia ixteraz jotzen dute, berririk ireki gabe.

N. Plater tiraldietan aritzeko baldintzarik onenak zeintzuk dira?

J. O. Eguraldi ona, haizerik ez eta ikusgarritasun ona duen zelaia behar du. Zelai onak badaude; Irungo San Martzialekoa, Hondarribikoa, Legazpikoa, Olaberrikoka... Daudenak mantendu egin behar dira. Ia horiek ere ez dizkiguten ixten.

ARITZ GORRITI

“Sekula baino uso gutxiago bota dut aurten”

NOAUA! Ehiza garaia zer moduz joan da udazken partean?

Juanjo Olano. Urrian ibili nintzen. Aurtengo denboraldia, nahiko eskasa izan da. Sekula baino uso gutxiago bota dut. Hemen, hego haizea behar da eta gutxi izan zen. Aspaldian izan den urterik eskasena.

N. Ehizean soinua eta arriskua bes-

terik ikusten ez dutenei zer esango zenieke?

J. O. Eztabaidak izan ditut, lagun artean. Haien zaletasunak errespetatzen ditudala esaten diet eta haiek nireak errespetatzen dituztela. Nik inori ez diot ezer txarrik egiten. Ehiza ez da gaur egungo kontua. Betidanik egon izan dira ehiztariak; gizakia beti izan da ehiztaria.

Donostiako Txistulariekin batera aritu ziren Zumarteko ikasleak

Aurreko igandean, Donostiako Udaleko Txistulariek ohiko kontzertua eskaini zuten. Lehendabizi, goizeko 9:00etan diana jo zuten Donostiako erdiguneko kaleetan, zortziko hauek joaz: "Pokopandegi" eta "Judizmendi". Eguerdi partean, kontzertua eman zuten Konstituzio Plazan eta Donostiako txistulariekin batera, Usurbil eta Lasarte-Oriako musika eskoletako ikasleak aritu ziren.

Kontzertuan 10 pieza jo ziren eta usurbildar ikasleek honako piezak jo zituzten:

Adolfo Romerok "Gaztetxoentzat" (Orripekoa), Salbatore Arrutik



ZUMARTEKOAK DONOSTIAKO
KONSTITUZIO PLAZAN JO ZUTEN
LEHENGO IGANDEAN.

"Labirulena" (Rapsodia), Joanes Maizak "Andre Madalen" (Orripekoa) eta Aitor Pagolak "Lau Ataleko Alborada".



KzGunea, apirilean goizez

Apirilean goizez irekiko dute KzGunea, 9:00etatik 13:00era. Hauek dira apirilerako prestatu diren ikastaroak eta azterketak.

IT Txartela

IT txartela lortzeko azterketa egunak:

Apirilak 10 (09:00-11:00)

Apirilak 16, apirilak 27 (11:00-13:00)

Ikastaroak

Apirilak 10-11

Zure ekipoa konfiguratu

Ordutegia: 11:00-13:00

Apirilak 12-13

Bat-bateko mezularitza

Ordutegia: 11:00-13:00

Apirilak 19

Fagor Gida Gastronomikoa

Ordutegia: 11:00-12:00

Apirilak 19

Zure etxebizitza aurkitu

Ordutegia: 12:00-13:00

Apirilak 25 (gazteleraz)

Via Michelin-ekin bidaiatu

Ordutegia: 11:00-12:00

Apirilak 25

Zure aseguru-etxea kontratatu

Ordutegia: 12:00-13:00

Ikastaro guztietarako izen ematea: KzGunean (943 36 14 12).

Atxegaldeko Jai Batzordearen bilera

Hilaren 24rako deitu zuten bilera bertan behera geratu ondoren, hitzordu berria ipini dute hainbat auzotarrek: larunbat honetan, martxoak 31. Hamabost urtetik gora igaro dira, azken jaiak bertan ospatu zirenetik. Larunbateko bilera 13:00ean izango da, Atxegalden bertan, garai bateko auzo elkarteak lokalean.

Jaiki Usurbilgo gazte taldeak batzar irekia antolatu du ostiral honetarako

Gazteek ere herriari buruz gzeresana dutelako eta herriarentzat nolako etorkizuna eman nahi dioten eztabaidatzeko Jaiki Usurbilgo Gazte Talde Independentistak batzar irekia antolatu du. Erraustegia, etxebizitza edota komunikazio gaiak jorratuko

dituzte. Herriari lotutako gaiak buruz eztabaidatu, ideiak bildu eta egin daitekeenari buruz hitz egiteko, gazte taldeak batzar irekira joateko dei egiten die usurbildar gazteei. Ekitaldia, ostiral honetan, martxoak 30, 19:00etan Sutegein. Informazio gehiago www.jaiki.org webgunean.

Urritasuna duten pertsonak ezagutzea eta ezagutaraztea gure esku dago

Asko begiratu arren, ez nauzu ikusten dio Atzegiren aurtengo sentsibilizazio kanpainaren leloak. Ezintasun intelektualen bat duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak aurkeztu berri duen kanpainaren helburua hau da: gizaritari pertsona horiek «diren bezala» hartzeko eskatzea. Martxoaren 28an eskualdeko taldearen aurkezpena egin zen Lasarte-Orian.

Asko begiratu arren, ez nauzu ikusten kanpaina martxoaren hasieran aurkeztu zuten Esther Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako diputatuak, Josean Idoeta Atzegiko lehendakariak, eta Mitxel Lakuntza elkarte horretako familientzako harrera zerbitzuko buruak. Hain zuzen ere, Mitxel Lakuntzak albiste honetako irudian ageri den Down sindromedun gazteari buruz adierazi zuen, hura ikustean, jende gehienak bere gaitza ikusten duela, eta ez «musika eta mozorrotzea gustuko» dituela.

Atzegiko ordezkariak herritarrei eskatu zieten onartzeko mundu guztiak behar duela besteen laguntza bizitzaren aldiren batean. Honen harira, martxoaren 28an ekitaldia egin zuen Atzegik Lasarte-Oriako Kultur Etxean.

Usurbildar batzuk ere Atzegi taldeko kideak dira. Informazio gehiagorako, honako telefono zenbakian jar zaitzekete eurekin harremanetan: 943 372 124.

Atzegi duela 40 urte sortu zuten guraso batzuk eta, gaur egun, 1.899



ATZEGIREN SENTSIBILIZAZIO
KANPAINA BERRIAREN IRUDIA DA
HAUXE.

familiaz gain, 2.929 bazkide kolaboratzaile ditu eta 5.600 atzegizale edo laguntzaile.

Atzegizale edo kolaboratzaile izateko aukera

Adimen urritasuna duten pertsonen edozein momentuan laguntzeko prest azaltzen diren pertsonak dira atzegizaleak.

Kolaboratzaileak, aldiz, kuota ekonomiko baten bidez, elkarteari laguntzen diotenak. 2.940 persona dira gaur egun Atzegik dituen kolaboratzaileak.

Atzegizale edo kolaboratzaile izan nahi duenak, 943 42 39 42 telefono zenbakian jasoko du informazio gehiago edo e-posta helbide honetan: asociados@atzegi.org

Ostiral honetan, bertso afaria Andatzpen

Ostiral honetan, gaueko 21:00etatik aurrera, Andatzpe elkartearen bertso afaria egingo da Bota Punttuba bertso eskolak eta Andatzpe elkarteak antolatutako. Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak arituko dira kantuan. Txartelak 20 eurotan salgai Txiriboga eta Andatzpe elkartearen.



Asteburu honetan, EHNA tramitatzeo aukera Usurbilen

Larunbat honetan, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) tramitatzeo aukera eskainiko du UHLk. Goizeko 11:00etatik 13.00era izango da hitzordua, udaletxe aurrean. Gogoratu hiru argazki, errolda agiria, adin txiki-koentzat familia liburuaren fotokopia eta 15 euro behar direla tramitazioa egiteko.




ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL


ZUBIAURRENEA 4 USURBIL
ileapaindegia
mistoa
943361951

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42


URDAINTZI S.L.
GROIKUNTZA
943 367 264
943 435 475
943 435 476

Martxan da Jubilatuen Astea

Astelehenean hasi zen Jubilatuen Astea, Gure Pakea elkarteak antolatutako hitzaldi-zikloa. Izaskun Arrillaga izan zen lehen hizlaria eta bere hitzaldian, higieñez eta gorputza zaintzeaz aritu zen hizketan. Aste osoan, Sutegiko auditorioa hitzaldi interesgarrien txokoa izan da. Ostiralean aurkeztuko da bertan Nagusilan elkarte. Igandean, hildako jubilatuen omenezko mezarekin amaituko da Jubilatuen Astea.



IZASKUN ARRILLAGAK ESKAINI ZUEN HITZALDIAN HERRITAR UGARI BILDU ZIREN.

Ostiralean, Nagusilan elkartearen aurkezpena

Martxoak 29, osteguna

“Pentsamendu positiboa, tristurari eta negatibismoari aurre egiteko”. Hizlaria: Eva Perez de Albeniz. Sutegin, 18:00etan. Sarrera: doan.

Martxoak 30, ostirala

“Nagusilaren aurkezpena”. Hizlaria: Gipuzkoako Nagusilane

presidentea. Sutegin, 18:00etan. Sarrera: doan.

Apirilak 1, igandea

11:00 Hildako jubilatuen omenezko Meza.

Antolatzailea: Gure Pakea.

Babesleak: Usurbilgo Udala, Kutxa.

Herri batzarra Sutegin, Ezker Abertzaleak deituta

Udal hauteskundeetarako bi hilabete falta dira. Zita horri begira lanean ari da Usurbilgo Ezker Abertzalea. Herri programa osatuta dute eta horixe da martxoaren 29ko herri batzarrean aurkeztuko dutena.

Herri diagnostikoa osatu zuen lehen lehenik Ezker Abertzaleak. Diagnostiko horretatik abiatuta, herri programa lantzen aritu dira azken asteotan. Herritarren ekarpenak ere bildu dituzte eta ostegun honetako herri batzarrean behin betiko herri programa aurkeztuko dute, batzarrak berak azken oniritzia eman diezaion. Herri batzarra ostegun honetan egingo da, hilak 29, arratsaldeko 19:30ean Sutegin.

Kultur arloko dirulaguntzak eskatzeko garaia da

2007ko Kulturako Dirulaguntzen Oinarriak jada argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, beraz, dirulaguntza eskaera egin nahi dutenek apirilaren 23ra bitarteko epea izango dute. Dirulaguntza eskaera egiteko, udalak espreski argitaratu dituen inprimakia eta fitxak bete behar dira. Informazio gehiago, udaletxean, baina www.noaua.com webgunean ere eskura dituzu oinarriak eta aurkeztu beharreko fitxen inprimakiak.

Datorren astean hasiko da Haur Eskolako masaje tailerra

Haur Eskolako guraso elkarteak antolatu du tailerra. Apirilaren 2an hasiko da eta apirilean, maiatzetan eta ekainean izango du jarraipena ikastaro honek. Astelehenetan egingo da, arratsaldeko 16.30etik 18.00etara, Haur Eskolako psikomotrizitate gelan. 3 eguneko saioak izango dira, 0-1 adin tarteko guraso eta haurrei zuzendua.

Bideratzailea Joxe Ramon Maudit psikologoa izango da. Gorputz terapeuta, psikoterapeuta eta prebentzioan ere aditua da Maudit doktorea.

Euskaraz zein gazteleraz eskainiko da ikastaroa. Prezioa: 10 euro. Izen-ematea, 943 374 061 telefono zenbakira deituz. Deitzen duten lehenengoek izango dute lehentasuna.

Apirilaren 15ean, txotxongiloak Sutegin

Izenak dioen bezala, Titirikontu-kontari ikuskizunean txotxongiloak dira protagonistak. 3 urtetik gorako haurrentzat egokia den saio hau Sutegiko auditorioan egingo da, arratsaldeko 17:30ean.

Sarrerak, aldeaz aurretik, 2 eurotan izango dira salgai Oiardo kiroldegian. Egunean bertan eta takilan, 3 euro. Usurbilgo Udalak antolatu du txotxongilo saioa.



Berandu iritsi eta azkar pasa zen Korrika

Urtero izan ohi den atzerape-narekin, baina ziztu-bizian. Hala pasa da Korrika 15 Zubietatik Aginagarako tartean. Ateri eutsi zion eta herritar ugari bildu zen euskararen aldeko lasterkaldian.

Larunbat iluntzerako herritar asko bildu zen Zubieta; beste hainbat, Santuenean geratu ziren. Kaxkoan eta Kalezarren ere herritar ugari zain zegoen. Hitzordua baino ordu erdi beranduago iritsi zen furgoneta eta atzetik zetozen korrikalariak. Erraustegiaren aurkako plataformako eta Etxerat!eko kideak bertan ziren.

Arin-arin igaro zituen Kaxkoko kaleak. N-634 errepidea moztu zuten Orioko noranzkoan. Atxegalde paretik irten ostean, jada Aginagarako bidea hartu baitzuen lasterkaldiak. Herrian oinezkoak egin bezala, Usurbilera zetozen ibilgailuetatik berotasun handia jaso zuten bidean aurrera egin zutenek. Lekukoa herriko elkarte, eragile, era-



ATERI ZELA, EUSKALTZALE ASKO IRTEN ZIREN LASTERKA EGITERA ETA BAITA BERTAN ZIRENAK ANIMATZERA ERE. KORRIKA 15 AZKEN TXANPAN SARTU DA.

kunde eta herritar askoren eskuetatik igaro zen.

Igandean, apirilak 1, Karrantzatik 2.150 kilometroko ibilbidea egin

ondoren eta festa handi batekin amaituko da 2007ko Korrika.

ARITZ GORRITI _____

Bezperan ospatu zen Korrika Txiki, euri tanta artean

Euri zaparrada artean ospatu zen Korrika Txikia pasa den martxoaren 23an. Udarregi Ikastolako ikasleek egin beharreko ibilbidean zuzenean eragin zuen. Hain zuzen, hiru taldeetan banatuta, San Esteban, Zubieta eta Iborla baserritik abiatzekoak ziren. Eguraldi txarrak, ordea, lasterkaldia moztera behartu zuten. Ikastolatik frontoirako tartea egin zuten, Haur Eskolako bi eta hiru urte artekoak bezala.

Helmugara ailegatzera, bertan ziren gurasoak, baita Korrikako doinu hotsak ere. Korrikalariak peto txuriekin eta euskararen aldeko aldarriekin iristen zihoazen bezala, betetzen zihoan une hartan aterpe bihurtu zen gunea. Ikasle, irakasle, guraso eta gainerakoak bilduta, euskararekin lotutako hainbat abesti kantatuz amaitu zuten ekitaldia.



EURIA EZ ZEN TRABA HANDIA IZAN; IKASLEEK UDARREGI IKASTOLATIK FRONTOIRAINOKO BIDEA OSATU ZUTEN.



ZUBIETATIK IRITSI ZEN KORRIKA GURE ARTERA. IRUDIAN, HERRI BATZARREKO KIDEAK. ERRAUSTE PLANTAREN AURKAKO MEZUAK UGARITU EGIN ZIREN ZUBIETAN.



ELHUYAR FUNDAZIOAK KILOMETRO BAT EROSI ZUEN. IRUDIAN, IÑAKI IRAZABALBEITIA, ALDAMENEAN DUEN HAURRAREKIN BATERA LEKUKOA ERAMATEN.



BESTEAK BESTE, IBON BERISTAIN ETA UNAI LATAILLADEREN ESKUETATIK PASA ZEN KORRIKAREN LEKUKOA.



EUSKARAREN ALDEKO LASTERKETAK ALDARRIKAPEN UGARİ BILDU ZITUEN BERE BAITAN. IRUDIAN, LASTERKETA KALEZARRETİK KALE NAGUSIRA BIDEAN.



NOAUA!K KALE NAGUSIAN HARTU ZUEN LEKUKOA ETA EUSKALTEGIRA HURBILTZEAN, ETUMETAKO IKASLEAK IZAN ZIREN LEKUKOA JASO ZUTENAK.



AGINAGAKO ANTOMOLANTXA ELKARTEAK EKITALDI UGARİ ANTOLATU ZITUEN EGUNEAN ZEHAİR. IRUDIAN, ANTOMOLANTXAKOAK ETA JAI BATZORDEKOAK.

Korrikako argazki gehiago ikusi nahi badituzu, noaua.com webgunean sartu eta Argazkitegia atalean klik egin. Korrika 07 karpetan aurkituko dituzu irudi gehiago. Bidali zure argazkiak erredakzioa@noaua.com helbidera eta gustura zintzilikatuko ditugu noaua.com webgunean, animo! Argazkiak: Iñaki Salsamendi, Aritz Gorriti, Josu Aranberri, Antxomolantxa Kultur Elkarteak.

Felix Aizpurua

Literatura Lehiaketa, idazlanen zain

Aste Santuko oporraldia gure idazle sena garatzeko garai egokia izan daiteke. Felix Aizpurua Literatura Lehiaketarako idatziak prestatzeko sasoi polita. Maiatzaren 9an amaituko da lanak aurkezteko epea.

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketara 8 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteak aurkez daitezke. Olerkiekin edo prosa lanekin parte har liteke lehiaketan.

Udarregi Ikastolako ikasleek lanak ikastolan bertan aurkeztuko dituzte, eta ikastolan ez dabiltzan usurbildarrek Udal Euskara Zerbitzura eraman behar dituzte lanak. Lanaz gain, eta lanari grapatuta, lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila adierazi behar dira. Lan bakoitzak egile bakarra izango du eta DBHko ikasleek lana ordenadoren idatzia aurkeztuko dute.



IAZ SUTEGIKO AUDITORIOAN EGIN ZEN SARI-BANAKETA.

Sariak honela banatuko dira

LH (3. eta 4. maila), 8-10 urte

1. saria 50 euro materialetan, diploma.
2. saria 40 euro materialetan, diploma.
3. saria 30 euro materialetan, diploma.

LH (5. eta 6. maila), 10-12 urte

1. saria 60 euro materialetan, diploma.
2. saria 50 euro materialetan, diploma.
3. saria 40 euro materialetan, diploma.

DBH (1. eta 2. maila), 12-14 urte

1. saria 70 euro materialetan, diploma.
2. saria 60 euro materialetan, diploma.
3. saria 50 euro materialetan, diploma.

DBH (3. eta 4. maila), 14-16 urte

1. saria 80 euro materialetan, diploma.
2. saria 70 euro materialetan, diploma.
3. saria 60 euro materialetan, diploma.

Epaimahaikide izango dira: Luis Aranalde, Xabier Pikabea eta Juan Luis Zabala.

Argibide gehiagorako udaletxeko Euskara Zerbitzura deitu: 943 371 999.

Oinarriak

1.- Lehiaketa honetan, 8 urtetik 16 urte bitarteko edonork har dezake parte:

A taldean, 8tik 10 urtera (LH 3 eta 4. mailak).

B taldean, 10etik 12 urtera (LH 5 eta 6. mailak).

C taldean, 12tik 14 urtera (DBH 1 eta 2. mailak).

D taldean, 14tik 16 urtera (DBH 3 eta 4. mailak).

2.- Baldintzak.

- a) Egilea usurbildarra izatea.
- b) Lanak euskaraz idatziak egotea.
- c) Lanek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.
- d) Gaia librea izango da.

e) Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.

f) Aurkeztutako lanek behar besteko mailarik ez badute erakusten, saria eman gabe gera liteke.

3.- Lanak nola eta non aurkeztu.

a) Aparteko orri batean eta lanari grapatuta, datu hauek adieraziko dira: lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila.

b) Lan bakoitzak egile bakarra izango du.

c) DBHko ikasleek lana ordenadoren idatzia aurkeztuko dute.

d) Udarregi Ikastolako ikasleek lanak Ikastolan bertan aurkeztuko

dituzte. Gainerakoek Udal Euskara Zerbitzura ekarri behar dituzte lanak.

4.- Olerkiaren neurria librea izango da.

5.- Prosaren neurriak:

A taldekoak: 1 edo 2 orrialde.

B taldekoak: gutxienez 2 eta gehienez 5 orrialde arteko lana.

C taldekoak: gutxienez 2 eta gehienez 6 orrialde arteko lana.

D taldekoak: gutxienez 3 eta gehienez 8 orrialde arteko lana.

6.- Lanak aurkezteko epea: 2007ko maiatzaren 9a.

Murritztu zirt edo zart

Esan zigutenez, gutako bakoitzak urtean 466,22 kg zabor sortzen omen ditugu, hau da, egunean 1,28 kg. San Markoseko

pertsona batzuk etorri ziren gure ikastolara zabor gutxiago nola sortu azaltzera. Arau hau jarraitzeko esan ziguten.

1.- MURRIZTU

Bi saio egin genituen eta asko ikasi ere.

Lehen saioan, aurkezpena egin ziguten prebentzio-az eta hondakinen sorrerari buruz, bai erosketak egiteko garaian (ontzi familiarrak, produktu solteak, kontzentratuak...) eta baita ohiko ohituren gainean (opariak, festa, merienda...). Saio hau, "Zenbat eta gutxiago hobe" jolasarekin amaitu genuen.

Bigarren saioan, Antzarraren moduko joko bat egin genuen. Talde bakoitzak hiru froga gainditu

2.- BERRERABILI

3.- BIRZIKLATU

behar zituen: erosketak egitera, aurpegi batek hainbat gurutze (berrerabileran oinarritua) eta bata bestearentzako eginak (gaiako bilketa lantzen duena).

Bukatzeko, beste egun batean eta gelan, gurasoei zuzenduriko etxerako eskutitza idatzi genuen, gurasoei informazioa zabaltzeko eta beraiek sentsibilizatzeko asmoarekin.

Argazkitan ikusten den bezala, oso ondo pasa genuen ikasiz eta jolastuz.



Hitz gezidunak !!

	EH-ko mendialdea	▼	Azkazala	▼	Verdiren opera	▼	Ez ona	▼	Bizkaiko ibaia
	* IRUDIAN		Ipar EH-n, inguru		Nafarroako hiria		Albaniako hiriburukoa		
	►		▼		▼		▼		▼
	Arautegiak	►							
	Elur oldea								
Deitura	▼	Elizako kidea	► ▼						
Trebea, iaioa		Atzeko alde							
►		▼			Suari dario	►	Ez eme	►	Ipar EH-n, aurkitu
					Harrapa ezak!		Norbaitek		
Ipurdantziariak	►				▼		▼		▼
Toles									
►				Oihal mota	►			Bokala	►
				Iridioa				Errep., ikara	
Arte, antze	►		▼	Bokala	►	60 minutu	►	▼	
Emakume				Omen		Lehen bi bokalak			
►				▼	Oso	► ▼			
					Sufrea				
Gipuzkoa-ko herria	►			Iseka egile	►	▼			

Irudian, Aginagako pilotalekua. Zein da bere izena?

Soluzioa, 16. orrialdean.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaia.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaia !!

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.



Usurbildarrak txapeldun-orde paleta goman

Pasa den ostiralean jokatu ziren Aginagako Ariztitxo pilotalekuan Gipuzkoako elkarteek jokatzeko paleta gomako Udaberri Txapelketako finalak. Herriko palis-tak protagonista izan ziren jaialdi honetan, baina azkenean

ezin izan zuten garaipenik lortu. Lehen Mailan Real Sociedad taldeko Imanol Zumeta usurbildarrak eta Antxordokik 25-17 galdu zuten eta Bigarren Mailan, Andatzpe-Peña Pagolako Iñigo Huegun eta Haritz Urdanpiletak 25-12.

Jubenil mailako Gipuzkoako Txapelketa jokoan izango da Oiardon

Asteburu honetan hiru eskubaloi partida ikusteko aukera izango da Oiardo kiroldegian. Jubenil mailako taldeak Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia jokatu du, senior mailako taldeak igoera faseko 3. partida eta kadete mutilek etxean jokatu duten liga-ko azken partidari egingo diote aurre.

Jubenil mailako taldearentzat hil edo biziko norgehiagoka izango da Oiardo kiroldegian jokatu dutena. Duela bi aste Ereintza Aguplast lide-rrari irabazi ostean sailkapenaren buruan jarri ziren usurbildarrak eta Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldian puntu bat lortzea nahikoa dute iaz ihes egin zien lehiaketa esku-ratu ahal izateko.

Izan ere, pasa den asteburuan erraz irabazi zuten Pasaian Donibane Eskubaloia taldearen aurka eta azken jardunaldi honen faltan sailkapenaren buruan dira 30 punturekin. Ereintza

Aguplast eta Bergara taldeek bi puntu gutxiago dituzte, eta azken talde honen aurka jokatu dute asteburu honetan Oiardo kiroldegian. Herriko jokalariek gazteek berdinketa lortu behar dute gutxienez jubenil mailan Gipuzkoako txapeldun izateko.

Senior mailako taldeak, berriz, Leioako C.D. Gaztelueta taldea izango du aurrez herriko kiroldegian datorren denboraldian Euskadiko txapelketa jokatu ahal izateko igoera faseko 3. jardunaldian. Gusla Urduliz taldearen aurka 33-27 galdu zuten pasa den aste-buruan eta une honetan parekotasuna da nagusi sailkapenean. Bergara dago lidergoan lau punturekin jokatu-tako bi partidak irabazita eta bi puntu dituzte Usurbil Kirol Elkartek, Gaztelueta eta Alipendik.

Azkenik, kadete mailako mutilen taldeak Legazpiako Katillu taldearen aurka jokatu du Oiardon Gipuzkoako txapelketako azken bigarren jardunaldian.

Nesken partida, larunbatean Haranen

Usurbil Futbol Taldeko neskak izango dira asteburu honetan Harane futbol zelaian jokatu duten bakarrak. Larunbatean arratsaldeko 16.30ean hasita Debako Amaiak Bat taldearen aurka jokatu dute Kopa txapelketako 2. itzuliko lehen partida.

1. Erregional mailako taldeak, berriz, Lezon jokatu du Allerru taldearen aurka. Felipe Garmendia getariarrak zuzendutako taldea 2. itzuli ona egiten ari da, eta joan den igandean Haranen Lagun Onak taldea 3-1 gaingitu ondoren, bi postu gorago jarri da sailkapenean. Hala ere, jaitsiera postuan dagoen Pedrusko taldea hiru puntura dago oraindik.

Azkenik, jubenilek Lazkaon jokatu dute larunbatean bertako taldearen aurka. Kopa txapelketako azken bost partidak irabazi ostean liderrarengandik bi puntura koka-tuta da Xabier Iraolak zuzendutako taldea.

Eguneko goardiako farmaziak

Martxoak 29, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 30, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 31, larunbata
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Apirilak 1, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Apirilak 2, astelehena
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Apirilak 3, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Apirilak 4, asteazkena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Apirilak 5, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 6, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 7, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Apirilak 8, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etxebeste Farmazia

Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087

(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia
TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da

*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Soluzioa !!

	+	A	+	A	+	A	+	T	+
	A	R	I	Z	T	I	T	X	O
	+	A	R	A	U	D	I	A	K
+	A	+	E	L	I	Z	T	A	R
A	B	I	L	A	+	K	E	+	A
+	I	P	U	R	T	A	R	I	N
I	Z	U	R	+	O	L	A	N	A
+	E	R	T	I	+	A	+	O	R
A	N	D	E	R	E	+	A	R	R
+	A	I	A	+	I	S	E	K	A

Argazkian: Ariztizko

Datorren astean ez da
NOAUA! astekaria banatuko

Aste Santuko oporrak direla tarteko, datorren astean ez da NOAUA!rik izango. Hurrengo alea apirilaren 13an plazaratuko dugu. Zorion-agurrak, idatziak, oharrak... ekartzeko azken eguna, apirilak 9.

ORDUTEGIA Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANORGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarautz SAN PELAIO	ZARAUTZ
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20
09.47	09.50	09.52	09.55	10.03	10.14	10.19	10.20
10.47	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.22
11.47	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20
12.17	12.20	12.22	12.25	12.33	12.44	12.49	12.50
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20
13.17	13.20	13.22	13.25	13.33	13.44	13.49	13.50
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20
14.17	14.20	14.22	14.25	14.33	14.44	14.49	14.50
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20
15.17	15.20	15.22	15.25	15.33	15.44	15.49	15.50
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20
16.17	16.20	16.22	16.25	16.33	16.44	16.49	16.50
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20
17.17	17.20	17.22	17.25	17.33	17.44	17.49	17.50
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20
18.17	18.20	18.22	18.25	18.33	18.44	18.49	18.50
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20
19.17	19.20	19.22	19.25	19.33	19.44	19.49	19.50
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20
20.47	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20
21.47	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20

00.00 Asteleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Asteleheneretik Igandera eta JAETAN

ORDUTEGIA Tren							
ZARAUTZ	Zarautz SAN PELAIO	Orio AIA	USURBIL	Donostia ERREKALDE	Donostia ANORGA	Donostia LUGARITZ	Donostia AMARA
06.08	06.09	06.15	06.24	06.30	06.33	06.36	06.39
06.38	06.39	06.45	06.54	07.00	07.03	07.06	07.09
07.08	07.09	07.15	07.24	07.30	07.33	07.36	07.39
07.38	07.39	07.45	07.54	08.00	08.03	08.06	08.09
08.08	08.09	08.15	08.24	08.30	08.33	08.36	08.39
08.38	08.39	08.45	08.54	09.00	09.03	09.06	09.09
09.08	09.09	09.15	09.24	09.30	09.33	09.36	09.39
10.08	10.09	10.15	10.24	10.30	10.33	10.36	10.39
11.08	11.09	11.15	11.24	11.30	11.33	11.36	11.39
12.08	12.09	12.15	12.24	12.30	12.33	12.36	12.39
12.38	12.39	12.45	12.54	13.00	13.03	13.06	13.09
13.08	13.09	13.15	13.24	13.30	13.33	13.36	13.39
13.38	13.39	13.45	13.54	14.00	14.03	14.06	14.09
14.08	14.09	14.15	14.24	14.30	14.33	14.36	14.39
14.38	14.39	14.45	14.54	15.00	15.03	15.06	15.09
15.08	15.09	15.15	15.24	15.30	15.33	15.36	15.39
15.38	15.39	15.45	15.54	16.00	16.03	16.06	16.09
16.08	16.09	16.15	16.24	16.30	16.33	16.36	16.39
16.38	16.39	16.45	16.54	17.00	17.03	17.06	17.09
17.08	17.09	17.15	17.24	17.30	17.33	17.36	17.39
17.38	17.39	17.45	17.54	18.00	18.03	18.06	18.09
18.08	18.09	18.15	18.24	18.30	18.33	18.36	18.39
18.38	18.39	18.45	18.54	19.00	19.03	19.06	19.09
19.08	19.09	19.15	19.24	19.30	19.33	19.36	19.39
19.38	19.39	19.45	19.54	20.00	20.03	20.06	20.09
20.08	20.09	20.15	20.24	20.30	20.33	20.36	20.39
21.08	21.09	21.15	21.24	21.30	21.33	21.36	21.39
22.08	22.09	22.15	22.24	22.30	22.33	22.36	22.39
22.40	22.41	22.47	22.56	23.00	23.03	23.06	23.09

00.00 Asteleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Asteleheneretik Igandera eta JAETAN

Agenda !

Martxoak 29, osteguna
- Herri Batzarra Sutegin, 19:30ean.
Deitzailea: Usurbilgo Ezker Abertzalea.

Martxoak 30, ostirala
- 19:00etan batzar irekia Sutegin, Jaiki Gazte Talde Independentistak deituta.
- 21:00etatik aurrera, Andatzpe elkartearen bertso afaria Bota Punttuba bertso eskolak eta Andatzpe elkarteak antolatutak.

Martxoak 31, larunbata
- 11:00etatik 13:00era EHNA tramitatze-ko aukera udallexean. Deitzailea: UHL.
- Atxegaldeko jaiak prestatzeko bilera. 13:00ean, auzoko lokalean.

Apirilak 2, astelehena
- Maite Franko ipuin kontalaria Sutegin. 18:00etatik aurrera, sarrera doan. 5 urteko haurrentzat.

Apirilak 15, igandea
- 17:30ean Sutegin, Titirikontu-kontari txotxongilo ikuskizuna.

Apirilaren 2an astelehena ospatuko da

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna

Hans Cristian Andersen idaz-
lea jaio zen egunarekin bat
eginez, apirilaren 2an ospatuko da
Haur Liburuaren Nazioarteko
Eguna. Ospakizun hori tarteko,
Maite Franko ipuin kontalaria udal
liburutegian izango da, arratsalde-
ko 18:00etan. Sarrera doan izango
da baina kontuan izan saioa 5 urte-
ko haurrei zuzendua dagoela.



MAITE FRANKO IPUIN KONTALARIA
SUTEGIRA HURBILDUKO DA.

Maite Franko euskara irakasle eta
didaktikaria izan da AEKn; baita
Hondarribiko Ikastolan antzerki
irakasle ere. Literaturan 2003 urte-
an eman zuen ezagutzera haurren-
tzako "Ixone isilik" ipuina
(Aizkorri). 2004 urteaz geroztik,

hiru arloak bat eginik, ipuin konta-
lari dabil, hiru urte hauetan Euskal
Herriko liburutegi eta eskola asko-
tan izanik eta 300 saio baino gehia-
go eskainiz.

ORDUTEGIA Autobus

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

DONOSTIA

URBIL

USURBIL

ZARAUTZ

ZARAUTZ

USURBIL

URBIL

DONOSTIA

DONOSTIA - ZARAUTZ

ZARAUTZ-DONOSTIA

07:40	>>	08:05	08:25	06:45	07:05	>>	07:30
08:10	>>	08:35		07:15	07:35	>>	08:00
08:40	>>	09:05	09:25	07:45	08:05	>>	08:30
09:10	09:30	09:35		08:15	08:35	>>	09:00
09:40	>>	10:05	10:25	08:45	09:05	>>	09:30
10:10	>>	11:05	11:25		09:40	09:45	10:10
11:40	>>	12:05	12:25	09:45	10:05	>>	10:30
12:10	12:30	12:35			10:40	10:45	11:10
12:40	>>	13:05	13:25	10:45	11:05	>>	11:30
13:10	13:30	13:35		11:45	12:05	>>	12:30
13:40	>>	14:05	14:25	12:45	13:05	>>	13:30
14:10	14:30	14:35			13:40	13:45	14:10
14:40	>>	15:05	15:25	13:45	14:05	>>	14:30
15:10	15:30	15:35			14:40	14:45	15:10
15:40	>>	16:05	16:25	14:45	15:05	>>	15:30
16:10	>>	17:05	17:25		15:40	15:45	16:10
17:40	>>	18:05	18:25	15:45	16:05	>>	16:30
18:10	18:30	18:35			16:40	16:45	17:10
18:40	>>	19:05	19:25	16:45	17:05	>>	17:30
19:10	19:30	19:35			17:45	18:05	18:30
19:40	>>	20:05	20:25	18:45	19:05	>>	19:30
20:15	20:35	20:40	21:00		19:40	19:45	20:10
21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	>>	20:30
22:15	22:35	22:40	23:00	20:45	21:05	21:10	21:30
				21:15	21:35	21:40	22:00

00:00

Aste jarraitzen du.

00:00

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

ORDUTEGIA
Autobus

Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN

DONOSTIA

URBIL

USURBIL

ZARAUTZ

ZARAUTZ

USURBIL

URBIL

DONOSTIA

DONOSTIA - ZARAUTZ

08.00	08.20	08.25	08.45
09.00	09.20	09.25	09.45
10.00	10.20	10.25	10.45
11.00	11.20	11.25	11.45
12.00	12.20	12.25	12.45
13.00	13.20	13.25	13.45
14.00	14.20	14.25	14.45
15.00	15.20	15.25	15.45
16.00	16.20	16.25	16.45
17.00	17.20	17.25	17.45
18.00	18.20	18.25	18.45
19.00	19.20	19.25	19.45
20.00	20.20	20.25	20.45
21.00	21.20	21.25	21.45
22.00	22.20	22.25	22.45
22.30	22.50	22.55	23.15

06.45	07.05	07.10	07.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.45	09.05	09.15	09.40
09.45	10.05	10.15	10.40
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05	13.15	13.40
13.45	14.05	14.15	14.40
14.45	15.05	15.15	15.40
15.45	16.05	16.15	16.40
16.45	17.05	17.15	17.40
17.45	18.05	18.15	18.40
18.45	19.05	19.15	19.40
19.45	20.05	20.15	20.40
20.45	21.05	21.15	21.30
21.45	21.05	21.15	21.40

HEGURKO LABURBAT JAIEGUNETAN

00.00	>>	00.25	00.45
02.00	>>	02.25	02.45
04.00	>>	04.25	04.45
06.00	>>	06.25	06.45

23.15	23.35	>>	00.00
01.15	01.35	>>	02.00
03.15	03.35	>>	04.00
05.15	05.35	>>	06.00

ZARAUTZ-DONOSTIA

00.00 Larunbat lanegunetan baliarik.

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 678582665.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645 403 905.
- Astebukaeratan lan egiteko zerbitzari bat behar da. 943 36 67 10.

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egund osoko disponibilitatea. 679742413.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ika-

sia eta esperientziaduna klase partikularak ematen. 635 209 193.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Gure loritoa martxoaren 7an desagertu zen, haize handiarekin beldurtu egin zen. Ikusten baduzu, mesedez, deitu: 656 734 413 (Ainara).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Añamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro.

Telefono zenbakia: 645 735750.

- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere 664 774 024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676 453 176.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Telefonoa: 617 242 660. e-posta: apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Oharra

Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenik orri honetan ikusi nahi baduzu, deitu eta datuak eman honako telefono zenbakian: 943 360 321. Edo bestela, e-postaz bidali honako helbidera: erredakzioa@noaua.com

Datorren alea apirilaren 13an plazaratuko dugu. Informazioa bidaltzeko azken eguna: apirilak 9.

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

JOSUE
ARANZAZISTROKI
**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**
Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com

OSASUN GIDA

Fisioterapia



Masajista



Optika



Odontologia



Gida honetan azaldu nahi baduzu:
☎ 943 360 321 • publizitatea@noaia.com

Txotx!!



Txotxetik sagardoa
jarrata usadioa!

Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228

www.sidrassaizar.com



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelheña izan ezik.



info@agroturismoarratzain.com

Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
DOLARE-SAGARDOTEGIA



☎ 943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

Aginaga
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7

Aginaga auzoa, USURBIL

Tel. eta Faxe: 943 36 67 10

Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginasagardotegia.com

